

Iñaki Martínez de Luna

SOZIOLOGOA ♦



ITZIAR UGARTEMENDIA

Sari baten sasi-kronika

DUELA HILABETE inguru izan zen *Hausnartu Sari*en banaketa eta badago hantxe esandakoaz zer hausnartu. Baina, hasteko, zoriondu behar ditugu sarituak: Haritz Goikoetxea lehenengo, Garbiñe Bereziartua bigarren eta, elkarrekin, Aitor Zuberogoitia, Goio Arana, Eneko Bidegain eta Txema Egaña hirugarren saridunak, hain zuzen. Horiek eta sarira aurkeztu ziren beste lan guztiek ongi erakusten digute euskal soziolinguistika zein bide sendo eta oparo ari den egiten.

Sari banaketaren ondoren mahai-inguru bat antolatu zen, bertan eremu akademikoko, euskal kulturako eta herri-administrazioako ordezkari kualifikatu edo gorenekoak zirelarik. *Euskal Soziolinguistikaren ikerketa etorkizunari* begira zen jorratu beharreko gaia eta horrek jakin-min berezia piztu zuen nigan. Izan ere, euskarak aurrera egingo badu, osagai garrantzitsu bat, lehenbizikoa ez den arren, ezagutza zientifikoaren ekarpenarena izango da.

Ez ziren hutsalak izan bertan atera ziren ideiak. Bat, adibidez, euskal soziolinguistikak oraingo datu bilketa txukunetatik harago joan behar duela, halako estatistikak motz gelditzen baitira hizkuntzen funtzionamendu soziala ondo ezagutzeko. Beste iruzkin bat izan zen, soziolinguistikak zientzia gogorren eredutik baduela

zer ikasi; adibidez, diziplinartekotasuna, konplexutasuna, ikuspegi sistemiko eta dinamikoa, teoria osatuak eta abar. Berrikuntza horiek eskatuko lukete gaur egun erabiltzen dugun analisi-paradigma iraultzea; halako planteamenduek beste ikuspegi zientifiko mota bat eraikitzea dakarte. Sánchez Carrión *Txepetx* eta Siadecok, besteak beste, XX. mendean eratutako lanketa-eredutik harago joatea litzateke; berrikuntza sakona, azken buruan.

Halako jauzia, ordea, ez da inprobisatzen; ez da ezerezetik egiten. Pauso berria eman ahal izateko egitura egokiak behar dira. Burura datorkit Mikel Zalbidetik 2010ean egindako aldarrira: “Funtsezko galdera batzuei ganoraz erantzun ahal izateko, ‘hurongo asterako’ presaren itolarria gabe lan egin ahal izango duen Clearing house moduko bat” (*Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 77).

Hau da, Hizkuntza-politika eragin-

korragoak eskatzen dizkigun konponbideak bilatzeko, gogoeta zientifikorako gune egoki bat.

Sasi-kronika honetan jorratutakoa

modu zehatzagoan eta sakonago ezagutu nahi duen horrek badu saio osoa ikusgai:

www.soziolinguistika.org/hausnartu/2013.

On degiola! ■



Euskal soziolinguistikak oraingo datu bilketa txukunetatik harago joan behar du, halako estatistikak motz gelditzen baitira hizkuntzen funtzionamendu soziala ondo ezagutzeko

Euskarazko poesia

DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IDAZLEA

EUSKARAZ egiten dugunok, gure artean honezkero aski ezaguna denez, ez dugu euskaraz soilik egiten. Gustatu nahiz ez, euskara hutsean bizitzeko denbora joana da eta, gutxi-asko, munduan egoteko erdarak ere baliatzen ditugu euskaradunok. Hortaz, 2014an euskaraz mintzatzen garenek euskaraz ere mintzatzen gara. Horixe esan nahi du egun euskaraz aritzeak, Bida-soaren bi alderdietan.

Halaber, poesia irakurtzen dugunok ez dugu poesia soilik irakurtzen. Aitor dut ez dakidala inoiz egon den halako denbora guztiz lirikorik, non poesia bakarrik ira-

kurtzea sozialki posible baitzen. Neurritzen zale porrokatua izanagatik, ez dakit halako errealiterik nahiko nukeen, generoen aniztasuna maite dut eta. Euskararen kasuan bezalaxe, poesia irakurtzen dugunok bestelako genero batzuk ere irakurtzen ditugu, beraz. Poesia irakurtzea ez da poesia soilik irakurtzea, poesia ere irakurtzea baizik.

Irakurleen bi hautu horietan datza euskarazko poesiaren sehaska. Kulunka goxoak desio ditu euskarak; esku onak poesiak. ■

